BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

314

EBAZPENA, 2011ko irailaren 12koa, Energia eta Meategien zuzendariarena; honen bitartez, Arabako Lurralde Historikoko Bastidako udalerriko Gatzaga Buradonen kokaturiko gatz-putzu baten «Meatze eta Industria Uraren» kondizioaren deklarazioa argitaratzen da

Abuztuaren 25eko 2857/1978 Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Meatzaritzaren Erregimenerako Erregelamendu Orokorraren 39.4 artikuluan xedatutakoari jarriki, Arabako Lurralde Historikoko Bastidako udalerriko Gatzaga Buradonen kokaturiko gatz-putzu baten «Meatze eta Industria Uraren» kondizioaren deklarazioa argitaratzen da.

Azaldutakoari jarraiki, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Arabako Lurralde Historikoko Bastidako udalerriko Gatzaga Buradonen kokaturiko gatz-putzu baten «Mehatze eta Industria Uraren» kondizioaren deklarazioaren argitalpena – Gatzaga Buradongo Administrazio Batzordeak (helbide soziala: Caño kalea, 1, Gatzaga Buradon) eskatutakoa– agintzea; putzuaren koordenatuak honako hauek dira: X: 513.978; Y: 4.720.261, datum ED50.

Bigarrena.– Deklarazio horren eraginpeko urak onura publikokotzat deklaratzea, abuztuaren 25eko 2857/1978 Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Meatzaritzaren Erregimenerako Erregelamendu Orokorraren 39.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Hirugarrena.–Abuztuaren 25eko 2857/1978 Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Meatzaritzaren Erregimenerako Erregelamendu Orokorraren 40. artikuluan ezartzen denari jarraiki, jabeei urtebeteko epea ematea, deklarazioaren ebazpenaren argitalpen edo jakinarazpenaren egunetik aurrera zenbatzen hasita, aprobetxamendua eskatzeko lehentasunezko eskubidea gauzatzeko, Meatzaritzaren Erregimenerako Erregelamenduan araututako moduan eta baldintzekin.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta beraren aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da Industria eta Energia Sailburuordetzan, hilabeteko epean ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, eta hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen 4/1999 Legean ezarritakoari jarraiki.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 12a.

Energia eta Meategien zuzendaria,
JORGE JUAN LETAMENDIA BELZUNCE.